

Euskara irakasteko metodologiaren bilakaera

(Development of the methodology used in teaching basque)

Bilbatua, Mariam
Mondragon Unibertsitatea
Humanitateak eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea
Dorleta Auzoa z/g
20540 Eskoriatza

BIBLID [1137-4446 (2000), 11; 161-173]

Euskara H2 irakasteko metodoen bilakaera aztertzen da ponentzia honetan. Lehenengo atalean azaltzen dira, metodoak aztertzeko eta sailkatzeko erabilitako irizpideak. Irizpideok hiru mailatan sailkatzen dira: oinarri teorikoak, curriculum antolatze irizpideak, ekintzak antolatze irizpideak. Maila bakoitzean aukera desberdinen aurrean aurkitzen gara eta aukera hauek erabiltzen ditugu metodoak sailkatzeko eta beraien arteko desberdintasunak azaltzeko. Bigarren atalean, aurretik azaldutako irizpideetan oinarrituz, euskara irakasteko materialak sailkatzen dira.

Giltz-Hitzak: Hizkuntzen irakaskuntza. Metodologia.

En esta comunicación se analiza la evolución de los enfoques en la enseñanza del euskara L2 en contextos escolares. En la primera parte, se exponen los criterios empleados para el análisis y comparación de los métodos. Los criterios se distribuyen en tres niveles: nivel de fundamentación, nivel de decisión y nivel de actuación. En cada uno de los niveles encontramos diferentes tipos de opciones que utilizamos para caracterizar las diferentes opciones metodológicas adoptadas para la enseñanza del euskara y su evolución a lo largo del tiempo. En la segunda parte, a partir de los criterios expuestos se van caracterizando y clasificando los materiales utilizados para la enseñanza del euskara L2 en contextos escolares.

Palabras Clave: Enseñanza de idiomas. Metodología.

On analyse dans cet exposé l'évolution de la façon d'envisager l'enseignement de l'euskara L2 dans des contextes scolaires. Dans la première partie on expose les critères employés pour l'analyse et la comparaison de méthodes. Les critères sont distribués en trois niveaux: niveau de fondements, niveau de décision, et niveau d'activité. Dans chacun des niveaux nous trouvons différentes sortes d'options que nous utilisons pour caractériser les différentes options méthodologiques adoptées dans l'enseignement du basque et son évolution dans le temps. Dans la seconde partie, à partir des critères exposés, les matériaux utilisés pour l'enseignement de l'euskara L2 dans des contextes scolaires se caractérisent et se classifient peu à peu.

Mots Clés: Enseignement des langues. Méthodologie.

Komunikazio hau hiru zatitan dago banatuta: 1. atalean metodologiak izango ditugu aztergai, hain zuzen, metodologiak deskribatzeko erabili ditudan irizpideak azalduko ditut; 2. atalean euskara irakasteko metodologiaren bilakaera azalduko dut, horretarako hiru informazio mota erabiliko ditudalarik: Hezkuntza Sailaren aginduak, testuliburuak eta eskolen esperimentzietan buruz argitaratutako artikulua. 3. atalean, azkenik, Deba Bailarako eskoletan murgiltze ereduko hurrekin garatzen ari den metodologiaren ildo nagusiak izango ditut aztergai.


1. METODOLOGIAK DESKRIBATZEKO IRIZPIDEAK

Metodologiak aztertzeko Richards J. eta Rogers-ek (1986) proposatutako zenbait irizpide hartu ditugu oinarritzat:

1. Metodologiaren oinarrian dauden ikuspegiak:
 - Hizkuntzaren izaerari buruzkoak (iturburu epistemologikoa)
 - Hizkuntzak ikasteko prozesuari buruzkoak (iturburu psikologikoa)
 - Hizkuntzak irakasteko prozesuari buruzkoak (iturburu pedagogikoa)
2. Kurrikuluma antolatzeko irizpideak.
3. Iharduera didaktikoak antolatzeko irizpideak
 - Ikasleei proposatzen zaizkien jarduerak
 - Irakaslearen eskuhartze motak

Jarduera didaktiko guztiek daukate oinarrian teoria inplizito ala esplizito bat, hala nola: hizkuntzaren izaerari buruzkoa (iturburu epistemologikoa), hizkuntzak ikasteko prozesuari buruzkoa (iturburu psikologikoa) eta hizkuntzak irakasteko moduari buruzkoa (iturburu pedagogikoa). Iturburu hauekin erlazioatutako printzipioek osatzen dute metodologia bakoitzaren enfokea.

Ondoren agertzen den kuadroan azaltzen dira iturburu bakoitzaren inguruan garatu diren ikuspegi nagusiak, komunikazio honen lehen atalean ikuspegi hauen azterketa egingo dugularik.



1. kuadroa. Ikuspegiak.

1.1. Hizkuntzen izaera eta funtzionamenduari buruzko ikuspegiak. Iturburu epistemologikoa

Hiru ikuspegi nagusi bereiztu daitezke euskara (H2) irakasteko metodologiaren bilakaeran

1.1.1. IKUSPEGI ESTRUKTURALA

Ikuspegi honen oinarrian dauden korronteeak, gramatika tradizionalak eta gramatika estrukturalak, hizkuntzaren alderdi errepresentazionala hartzen dute oinarritzat: hizkuntzaren egiturak pentsamenduaren egiturak erreflejtzen ditu eta hauek, beren aldetik, munduaren logika. Ikuspegi hau hizkuntza klasikoan irakaskuntza justifikatzeko erabili ohi da.

Hizkuntz esanahia kodifikatzeko elementuen eta hauen arteko harreman estrukturalen bidez deskribatzen da; ondorioz, hizkuntza bat ikasteko hizkuntzaren elementuak ikasi behar dira eta baita elementu hauek estrukturalki lotzeko arauak ere.

Ikasi behar diren elementu horiek honela sailka daitezke:

- Unitate fonologikoak
- Unitate gramatikalak
- Unitate lexikalak

1.1.2. IKUSPEGI FUNTZIONALA

Ikuspegi honek hizkuntzaren alderdi komunikatiboa hartzen du oinarritzat. Hizkuntza esanahi funtzionalak adierazteko tresna gisa aztertzen du, eta hortik sortzen da hizkuntzaren alderdi semantikoak eta komunikatiboak zehazteko ahalegina.

D.A. Wilkins-ek (1976) aztertu zituen hizkuntza bat ikasten ari den pertsona batek hizkuntza horretan menperatu behar dituen esanahi funtzionalak, eta bi esanahi mota bereiztu zituen:

- Esanahi funtzionalak: eskatzea, galdetzea,
- Esanahi nozionalak: koloreak, kantitateak...

Ikuspegi hau erabiliko da Europako Kontseiluak bultzatutako “Atalase Maila” (1988)(The Threshold Level 1975) ikerketan. Europako hizkuntza gehienetan egin den ikerketa honetan zehazten da, funtzio eta nozioen arabera, ikasleek hizkuntza arrotzean zein esanahirekin aritzeko gai izan behar lukeen, baita esanahi hauek konbentzionalki adierazten dituzten formak ere.

Euskararako ere egin zen “Atalase Maila” ikerketa (1988)

Hau da, laburtuz, “Atalase Mailak” (1988) proposatzen duen ereduak:

Xede taldea

Behar komunikatiboak

- Egoerak
- Eragiketak
- Trebetasunak

Zehazpen analitikoak

- Gaiak
- Nozioak
- Funtzioak

Zehazpen linguistikoa

Lan honek eragin handia izan du oro har hizkuntza modernoek irakaskuntzaren garapean. Van Ek-ek (1988) horrela azaltzen du arrakasta honen zergatia: "lehen aldiz, hizkuntzaren erabilpenaren terminoetan zehazteko prozedura koherente bat proposatzean datza eta ez hizkuntz formetan".

Euskararen irakaskuntzan ere nabaria izan da lan honen eragina, bai eskolaren inguruan garatu diren proposamentan eta baita helduen irakaskuntzan ere.

Bestalde, lan honen mugen inguruan sortutako eztabaidak, alderdi semantikoak forma konbentzionalean definitzeak, alegia, eragin handia izan du komunikazio gaitasunaren izaeraz eta izaera honek hizkuntz praktikara dakarrenaz.

1.1.3. IKUSPEGI DISKURTSIBOA

Ikuspegi honek ere hizkuntzaren alderdi komunikatiboa hartzen du oinarritzat.

Ikuspegi honentzat testuinguru desberdinetan sortzen diren ekoizpen linguistikoak testu eta diskurtso mailan antolatzen dira eta beraiek dira hizkuntzaren funtzionamendua azaltzeko errealitate bakarrak.

Ikuspegi honetan kokatzen dira J.P. Bronckart eta bere ekipoak garatutako "interakzionismo diskurtsiboa" deituriko teoria.

Autore hauentzat (Bronckart 1998) edozein testutan hiru antolaketa mota bereiztu daitezke:

Testuaren infrastruktura

- Testuaren plan orokorra
- Testua osatzen duten diskurtso motak
- Segmentu hauen antolaketa mota

Testualizazio mekanismoak

- Testuaren koherentzia tematikoa
- Konesio mekanismoak
- kohesioa

Modalizazioa


Maila honetan azaltzen dira testuaren "abotsak" eta "abots" hauek igorlearekin dituzten harremanak.

Hiztunok edozein jarduera linguistiko arrakastaz burutzeko, testuinguruari buruzko eza-gutza testu eta generoari buruzkorekin lotu behar dugu. Hortaz, ikasle batek ondoko trebetasunak garatu behar ditu edozein genero ekoizteko:

- Testuinguruari eta erreferenteari egokitzeko gaitasuna
- Erreferente diskurtsiboak erabiltzeko gaitasuna
- Testua ekoizteko eragiketa psikolinguistikoak eta unitate linguistikoak aukeratzeko eta erabiltzeko gaitasuna.

1.2. Kurrikuluma antolatzeko irizpideak

Iturburu epistemologikoan aztertutako hiru ikuspegiekin erlazionatuta, kurrikulumak hiru ardatzen inguruan antolatu ohi dira:



- gramatikaren elementuen arabera
- nozio-funtzioen arabera
- diskurtsoen arabera

1.2.1. GRAMATIKAN OINARRITUTAKO KURRIKULUMA

Kurrikuluma, hizkuntzaren elementuak eta elementu hauek egituratzeko sistemen arabera antolatzen da:

- sistema fonetikoa
- sistema morfologikoa
- sistema sintaktikoa
- sistema lexikala

Edukiak sekuentziatzeko irizpide nagusia sistemaren beraren antolaketa da. Egituren erraztasuna eta zailtasuna izan ohi dira edukiak aukeratzeko irizpide, eta, honekin batera, egitura hauek erabiltzeko kontestuen maiztasuna.

1.2.2. NOZIO-FUNTZIOETAN OINARRITUTAKO KURRIKULUMAK

Atal honetan "Atalase Mailan" oinarritutako kurrikulumak hartuko ditugu erreferentetzat. Ikerketa honetan oinarritutako kurrikulumek bi eduki mota bereizten dituzte:

- eduki komunikatiboak
- gauzapean linguistikoa
- Eduki komunikatiboak

Honako hiru mailetan zehazten dira:

Gaiak: Multzo honetan definitzen da zeri buruz hitz egingo dugun. Gaiak determinatzen dituzte eduki lexikalak.

Nozioak: Nozio kontzeptuaren barruan, gaiak adierazteko menderatu behar ditugun item lexikalak definitzen dira, hau da, gai baten inguruan aritzerakoan adierazten ditugun esanahiak.

Atalase Mailan, bi nozio-multzo bereizten dira: **nozio orokorrak eta nozio espezifikokoak**. Lehenak, testuinguru desberdinetan erabil daitezke, transmititzen dituzten esanahiak ez baitaude testuinguru konkretu batekin lotuak: kantitatea, denbora, kalitatea... Bigarrenak,ostera, gaien arabera zehazten dira: gai konkretuei dagokien lexikoa.

Hizkuntz funtzioak: Komunikazioaren helburuekin daude lotuta, beraien bidez definitzen baitira hizkuntza erabiltzen dugunean burutzen ditugun eginkizunak: eskatu, agindu, eztabaidatu.

Atalase Mailan, funtzioak lau multzoren arabera antolatzen dira:

Ekintza funtzioak: Solaskideen artean burutu daitezkeen ekintza posibleak negoziatzeko erabiltzen dira: aginduak, elkarrekintzen proposamenak...

Jarrera funtzioak: Poza, tristura, jarrera edota erreakzio mota desberdinak adierazteko balio dute.

Informazio funtzioak: Informazioaren trukaketa bideratu eta ahalbidetzen dute.

Diskurtso funtzioak: *Diskurtsoan sartzeko, atentzioa erakartzeko, diskurtsoaren atalak lotzeko...* erabiltzen dira: sarrerak, diskurtsoaren konponketak...

• **Gauzapen linguistikoa**

Atal honen barruan funtzioak eta nozioak adierazteko forma konbentzionalak definitzen dira:

- Lexikalak
- Morfosintaktikoak
- Esaera funtzionalak

Eredu honetan proposatzen den progresioa eginkizun komunikatiboekin erlazionatuta dago, eginkizun komunikatiboan lanketa ziurtatu nahi baita edukiak aukeratzeko eta sekuentziatzeko.

1.2.3. DISKURTSOETAN OINARRITUTAKO KURRIKULUMA

Ikuspegi honetan oinarritutako kurrikulumak testuak eta generoak hartzen dituzte ardatz modura.

Euskararen irakaskuntzan eragin handia izan duelako, eredutzat hartzen dugu J.P.Bronckart-en ekipoak garatutako eredua

Genero multzoen proposamena (Dolz 1997)

<p><i>Komunikazioaren ingurune soziala</i> ELEMENTU TIPOLOGIKOAK Hizkuntz gaitasun nagusiak</p>	<p>Ahozko eta idatzizko generoen adib.</p>
<p><i>Kultura literarioa</i> KONTATU Ekintzaren mimesia sinesgarriari intriga erantsiz</p>	<p>Ipuin zoragarria Alegia Abenturazko kontakizuna Zientzia-fikziozko kontakizuna Misteriozko kontakizuna Kontakizun mitikoa Sketch edo istorio harrigarria Biografia Eleberria Eleberri historikoa Alegiazko berria Parodia ipuina Asmakizuna Haur-abestia ...</p>

<p><i>Giza ekintzen dokumentazioa eta memorizazioa</i> KONTATU Bizitako esperientzien adierazpena diskurtsoaren bidez eta denboran kokatuta</p>	<p>Bizitzako kontakizunak Bidaletako kontakizunak</p> <p>Norberaren egunerokoa Testigantza Pasadizoa Autobiografia Curriculum Vitae ... Gertaerak Erreportaia Munduko kronika Kirol kronika ... Historikoa Kontakizun historikoa Ohar biografikoa Biografia</p>
<p><i>Arazo sozial polemikoen eztabaidak</i> ARGUDIATU Jarrera hartzearen finkatzea, gezurtatzea eta negoziatzea</p>	<p>Iritzi artikulua Argudiozko elkarriketak</p> <p>Irakurlearentzako gutuna Eskera gutuna Eztabaida informala Eztabaida moderatua Editoriala Errekurtsoa Legezko erreklama Saiakera</p>
<p><i>Jakiteen igorpena eta eraikuntza</i> AZALDU Jakintza modu desberdinen aurkezpen testuala</p>	<p>Testu erakuslea Hitzaldia Artikulu entziklopedikoa Aritu bati elkarriketa Azalpen testua Ohar-hartzea Testu erakusle eta azalpen testuen laburpena Txosten zientifikoa Esperientzia baten aipua</p>
<p><i>Argibideak eta eraikuntza</i> EKINTZAK DESKRIBATU Portaeren elkarren arteko arautzea</p>	<p>Muntaia argibideak Errezeta Arautegia Jokoaren arauak Erabilpen modua Agindu desberdinak Iragarpen testuak</p>

Generoak taldekatzeko proposatzen den eredu honetan hiru irizpide jarraitu dituzte:

- Irakaskuntzari atxikitako helburu sozialekin bat etortzea eta gure gizarteko komunikazioaren oinarritzko alorrean ahozko zein idatzizko adierazpeni erantzutea.
- Ikasketa planetan azaltzen diren taldekatze motak malgutasunez integratzea.
- Taldekatutako generoak antzekoak izatea hizkuntz gaitasunei dagokienez

Progresioa markatzeko ondoko irizpideak proposatzen dituzte:

Genero talde bakoitzean, eta genero bakoitzaren alderdi tipologikoak eta hauen eskatzen duten gaitasun linguistikoa kontutan edukiz, gero eta konplexutasun altuagoko edukiak programatzen dira. Progresioa espiral eran antolatzen da, hau da, eduki antzerakoak gero eta konplexutasun maila handiagoarekin; honenbestez, genero bera maila desberdinetan landu daiteke gero eta sakontasun maila handiagoarekin.

1.3. Hizkuntzak ikasteko prozesuari buruzko teoriak. Iturburu psikologikoa

Hizkuntzak ikasteko prozesuak deskribatzeko bi ikuspegi bereiztu daitezke:

1.3.1. LEHENENGO IKASI, ONDOREN KOMUNIKATU

Ikuspegi honen ustez, hizkuntza ikasten duenak, hasteko, hizkuntza tresna ezagutu behar du, hau da, hizkuntzaren arauak ezagutu behar ditu, horrela bakarrik edukiko du tresna hori erabiltzeko gaitasuna.

Ikuspegi honen inguruan garatutako metodologiak, bestalde, Hizkuntza ikasteko prozesua eta prozesuaren bilakaeraren oinarriko mekanismoak azaltzeko ikuspegi asoziazionistan oinarritzen dira.

Ikuspegi asoziazionista

Ikuspegi honentzat gizakiak portaera asko garatzeko gaitasuna dauka; portaera hauen sorrera eta garapenean funtsezko hiru elementu deskribatzen ditu:

Kondukta sortzeko estimulua –organismoa(ikaslea)– errefortzua positiboa
negatiboa

Hizkuntzen ikaste prozesua beste portaera guztien ikaste prozesuarekin identifikatzen da; beste modu batean esanda, hizkuntza ikasten duen ikasleak irakasleak aurreikusitako estimulu eta errefortzuen arabera garatuko du bere ezagutza.

1.3.2. HIZKUNTZA ERABILIZ IKASTEN DA HIZKUNTZA

Ikuspegi interaktiboa/ikasketa naturala

Ikuspegi honentzat hizkuntzak ikasteko abiapuntuak honokook dira: gizakien arteko interakzioak eta interakzio hauek ahalbideratzen dituzten egoera komunikatiboak. Bruner-ek garatutako teoriak eragin handia izango du ikuspegi honen hedapenean. Autore honentzat komunikazioa garatzeak inpliketzen du, alde batetik, hitzak eta enuntziatuen esanahiaz jabetzea eta, bestetik, forma hauek noiz eta non erabili behar diren ikastea. Alderdi bi hauek garatzeko umeak heldu batekiko interakzioa behar du.

1.4. Hizkuntzak irakasteko prozesuari buruzko teoriak. Iturburu Ppedagogikoa

Jarduera didaktikoa eta irakaslearen eskuhartze erak zehazten dira atal honetan.

Bi ikuspegi bereizten ditugu:

1.4.1. IRAKASLEEN TRANSMISIOAN ZENTRATUTAKO IKUSPEGIA

Ikuspegi honetan helburutzat hartzen diren edukiak analitikoki deskonposatzen dira eta errazenetatik zailenetara ordenatu. Objektuak berak markatzen du progresioa.

Ikaste prozesua azaltzeko lehen aipatutako ikuspegi asoziazionistarekin lotu daiteke ikuspegi hau.

Ikuspegi honetan kokatu daiteke euskaren irakaskuntzan eragin handia izan duen "estruktural situazional" ikuspegia: ikasleen trebetasunak garatzen dira, praktika kontrolatuak erabiliz.

Testuinguru batean kokatzen dira ikasleei aurkezten zaizkien eduki estrukturak, baina testuinguru honek ez du inongo loturarik eginkizun komunikatibo errealekin.

Ikuspegi honen helburuetariko bat errorea saihestea da; horregatik, ikasleak irakasleak emandako ereduaren inguruko praktikara mugatzen du bere eginkizuna, lehenengo urratsetan bereziki

Hona hemen ikuspegi honek jarraitzen duen prozedura:

Aurkezpena --- praktika gidatua: errepikapena
galdera-erantzunak
elementuak aldatzea

1.4.2. IKASLE ETA IRAKASLEAREN ARTEKO INTERAKZIOAN ZENTRATUTAKO IKUSPEGIA


Ikuspegi honentzat ikasle eta irakasle artean sortzen diren interakzioak eta interakzio hauetan sortzen den komunikazioa dira ikaste prozesuaren abiapuntua.

Ikuspegi honen barruan bi korronte bereiztu daitezke (Dolz 1998).

- "Elkarreragin intersubjetiboa" "Aprendizaia naturala"

Korronte honek interakzioetan sortzen diren eginkizun komunikatiboetan oinarritzen du irakaslearen interbentzioa, egoera naturalak hartzen direlarik abiapuntutzat eta baztertu, aldez, irakaslearen eskuhartze egituratuak.

Ikasteko objektuzak hartzen dira diskurtsoak, ez ostera, irakasteko objektutzat



- “Elkarreragin instrumentala”

Irakaslearen eskuhartzea hizkuntza irakasteko proiektu batekin lotzen da, eta proiektu horren edukiak ikasleen eguneroko esperientzietatik bereizten dira.

Proiektu hauetan sortzen diren interakzio didaktikoetan, ikasleak diskurtso mota desberdinak ekoizteko menperatu behar dituen prozedurak eta erabili behar dituen tresna linguistikoak garatzen ditu.

Ondoren azaltzen den kuadroan laburtzen dira aipatutako ikuspegiak duten eragina bai kurrikulumaren antolaketan eta baita metodologian ere.

2. METODOLOGIAREN BILAKAERA EUSKARAREN (H2) IRAKASKUNTZAN

Metodologiaren bilakaeran hiru etapa bereiztu daitezke, etapa bakoitzean ikuspegi bat nagusitzen delarik; hala ere, ikuspegiaren agertze eta desagertze prozesuak ez dira bat-batean gertatzen, izan ere, aztertu ditugun proposamenetan aurreko ikuspegietan oinarritutako proposamenenak identifikatu daitezke ondorengo etapetan ere. Bestalde, nagusia den ikuspegiarekin batera, eta bereziki eskoletan garatutako esperientzietan, azaltzen dira ikuspegiarekin bat ez datozen esperientzia berritzaileak.

1. etapa

70 eta 80ko hamarkada erdi aldera garatzen diren proposamen metodologikoen hizkuntza deskribatzeko ikuspegi estrukturala hartzen dute oinarritzat. Ikuspegi hau agertzen da Euskal Elkarte Autonomoko Hezkuntza Sailak irakaskuntza arautzeko 1981ko maiatzaren 25-ean argitaratutako aginduan eta, agindu honekin lotuta, ondorengo urteetan argitaratuko diren Orientabide Didaktikoetan. Hona hemen agindu honetan proposatzen diren eduki multzoak:

1. Ulermena
2. Mintzamina
 - fonologia
 - hiztegia
 - morfosintaxia
 - esaerak

Ikaste prozesuari buruz nagusitzen den ikuspegia honakoa da: lehengo ikasi, ondoren erabili.

Etapa honetan argitaratutako material gehienek ikuspegi estruktural situazionalen oinarritzen dira. Lehen esan bezala, ikuspegi honetan abiapuntutzat hartzen diren testuinguruak helburu bakar bat dute: egiturak lantzeko oinarri izatea, hain zuzen. Hona hemen etapa honetan argitaratutako bi materialetatik jasotako adibideak.

Ikastoletan, etapa honetan garatzen diren hainbat esperientzietan beste ikuspegi baten eragina ere nabaritzen da: Freinet-en teoriak eragindakoak, hain zuzen ere. Esperientzia hauek aprendizai aktibo eta naturala bultzatzen dute. Ikuspegi honek, beraz, hizkuntzaren alderdi komunikatiboa azpimarratzen du, baita umeak eginkizun komunikatibo errealetan murgiltzeko beharra eta, nola ez, ikasleek duten paper aktiboa ikaste prozesuaren garapenean.

2. etapa

1988ko urtean argitaratutako " Atalase Maila " ikerketaren eraginez euskara irakasteko proposamen metodologikoetan ikusten da ikuspegi komunikatiboaren eragina; hala ere, kasu batzuetan ikuspegi estrukturalaren ohiko eduki multzoei gehitzen zaizkien beste eduki multzoak baino ez dira funtzioak. Horrela gertatzen da, esate baterako, Nafarroako Hezkuntza Sailak 1988ko azaroaren 3-an, euskararen irakaskuntza arautzeko argitaratutako aginduan eta etapa hortan sortutako hainbat testuliburutan: *Euskara Mailaka*, *Zubia*, *Haurtxoa* eta baita gaur egun erabiltzen diren zenbait materialetan ere: *Bene-benetan*. Material hauek, bestalde, mantetzen dute" lehenengo ikasi eta gero erabili" ikuspegiaren printzipioa.


Argitaratutako zenbait materialetan ikuspegi nozional funtzionalaren printzipioak jasotzen dira, eta sortzen dituzte haurren behar komunikatiboekin lotutako egoerak eta egoera horietan erabiltzen diren esamoldeen ereduak jasotzen dituzte, esamolde hauek praktikatzeko egoera komunikatiboak sortzen dira eta egoera hauetan ikasitakoaren erabilera pertsonala bultzatzen da. Multzo honetan kokatzen ditugu "KALAKARI", "ZALDIKO MALDIKO" eta "MURGIL" material kurrikularretan egiten diren proposamenak.

Argitaratutako materialez gain eskoletan hainbat esperientzia burutuko dira ikuspegi honen inguruan, esperientzia hauetan Atalase Mailaren markoa erabiliz haurren behar komunikatiboak definitzen direlarik; lantzen dira baita ere behar komunikatibo hauekin erlazionatutako funtzioak, nozioak eta berauek adierazteko baliabide linguistikoak azaltzeko estrategiak eta, azkenik, interakzio hauetan irakaslearen eskuhartze estrategia egokiak.

3. etapa

90. hamarkadan garatzen ari den ikuspegiari bi ardatz ikus daitezke: ikuspegi diskurtsiboan oinarritutako proposamen kurrikularrak eta proiektuetan ardatzutako proposamen didaktikoak.

Ikuspegi honetan oinarritzen dira Euskal Autonomia Elkartearen Hezkuntza Erreforma bideratzeko argitaratutako Diseinu Kurrikularrak. Proposamen kurrikular hauetan edukiak



antolatzeko azpimarratzen den oinarritzko helburua ondokoa da: ikasleen komunikazio-gaitasuna garatzea. Komunikazio gaitasuna hau bi ardatzen inguruan garatzen da: hizkuntzaren erabileran eta erabilerari buruzko gogoetetan.

Azaldutako bilakera irudikatzen da ondorengo kuadroan, bertan ikuspegiak azaltzeko erabilitako irizpideen arabera kokatzen dira hiru etapa hauetan argitaratutako materialak.

3. PROIEKTU INTERDISZIPLINARRAK EUSKARAREN IRAKASKUNTZAN

Komunikazio honi bukaera emateko Murgiltze ereduaren inguruan garatzen ari den ikuspegi metodologikoari buruzko aipamena egingo dut. Ikuspegi honek murgiltze ereduaren antolaketak eskaintzen dituen aukerak aprobeztatu nahi ditu ikasgaiaren irakaskuntzaren bidez umeen H2 lantzeko; horretarako, bi printzipio jorratzen ari dira:

- H2 -ren irakaskuntza, Ingurunearen Ezagutza eta Hizkuntza uztartzuz, proiektu global-tzaileen bidez lantzea.
- Proiektu globaltzaile bakoitzaren bidez testu baten lanketa sistematikoa egitea.

Proiektuak dira Sekuentziaren ardatza, proiektua hasieratik ezaguna da umeentzat eta, alderdiren batean edo bestean negoziatuta, irakaskuntza-ikaskuntza gauzatzeko balio izango duen markoa zehazten du.

Honela, edukien globalizazioa eta esanguratasun logikoa ahalbideratzen dira. Proiektu hauek honako hobariak eskaintzen dizkigute:

- Marku esanguratsu bat aurkeztea
- Edukiak erlazionatzea
- Eduki bakoitzari esanahia ematea
- Aktibitatea kontrolatzea eta bilakera ezagutzea
- H2 hizkuntzaren lanketa sistematizatzea

Proiektu bakoitzaren bidez, eta egoera komunikatibo bati lotuta, testu/genero mota bat lantzen da sistematikoki, lan sistematiko honen helburuak hauek direlarik:

- Diskurtsoak ekoizteko eragiketak menperatzea
- Egoera komunikatiboa errepresentatzeko gaitasuna garatzea
- Diskurtsoak egituratzen jakitea
- Unitate linguistiko egokiak aukeratzeko jakitea

Sekuentzia Didaktikoaren bidez antolatzen da testuaren lanketa sistematikoa eta sekuentziok bukaeran burutuko duten azken xedea edo eginkizun komunikatiboaren inguruan antolatzen dira.

Hona hemen Sekuentzia Didaktikoa antolatzeko jarraitzen ditugun pausuak:

- Azken xedea zehaztu
- Ikasleek dakitena kanporatu eta ebaluatu
- Ereduak aztertu
- Ereduaren inguruan hausnarketa burutu (kontrol zerrenda elaboratu)
- Testua ekoiztu kontrol zerrendaren arabera
- Kontrol zerrendaren arabera ikaslearen ekoizpenaren zuzenketa eta ebaluazioa egin
- Azken xedea burutu

Gure ustez ikuspegi honek ahalbideratzen du irakaskintza murgiltze ereduaren printzipio nagusitik abiatuz: Eskolako ikasgaiaren ikaskuntzan oinarrituz H2aren lan sistematikoa; hala ere, aipatutako diskurtsoak ekoizteko eragiketen hiru konkrezio mailetan definitzeke dauzkagu zenbait alderdi: euskararen azterketa diskurtsiboa, generoetan oinarritutako edukien sekuentziazioa eratzeko irizpideak eta, adin desberdinetan eredutzat hartzeko moduko testu egokiak.

BIBLIOGRAFIA

- BRONCKART (1997) "La enseñanza de las lenguas. Por una construcción de las capacidades textuales". Hitzaldia "Ensenyament de Llengües i Plurilingüisme". Valencia.
- DOLZ, J. (1997), Géneros y progresión en expresión oral y escrita, elementos de reflexión a partir de una experiencia realizada en la Suiza francófona. *Textos* 11. Alea, 77-98.
- HABE (1989) *Euskara-irakaslearen eskuliburua*. HABE. Gasteiz.
- KING, A. (1988) "Atalase Maila" Europako Kontseilua. Strasbourg.
- NUNAN, D. (1996) *El diseño de tareas para la clase comunicativa*. Cambridge University Press.
- RICHARDS, J.C.; RODGERS, T.S. (1998), *Enfoques y métodos en la enseñanza de idiomas*. Cambridge University Press.
- SAINZ, M; ETXEBERRIA, L; ETXABE, M, (1995) "Programación conjunta del euskera y del Conocimiento del Medio en programas de inmersión en Educación Primaria" Comunicación Seminario " Llengües i Educació" Sitges. Barcelona.